



BAIONAKO HERRIKO ETXEAK AURKEZTEN DU

GRAPHIC WAVES

Taldekako erakusketa
Points de vue #4 festibalaren
barnean

2020KO URRIAREN 9TIK AZAROAREN 15ERA

Sartzea libre asteartetik igandera, 14:00etatik 19:00etara

D | DAM BAYONNE

6 QUAI DE LESSEPS
LESSEPS KAIA, 6

Bayonne*
BAIONA-PAYS BASQUE
Plurielle et si singulière

Instituzioek gordetu eta ez aitortu karrikako jalgitze batzuen itzalean luzaz utzi jaduera artistikoa dugun street arteak hemendik goiti sinesgarritasun osoa lortu du nazioarteko kultura munduan. Baionan, Spacejunk arte zentroaren lan artatsuari esker, sorkuntza erraldoi eta freskek « aire zabaleko » laugarren museoa osatzen dute, biztanleen eta bisitarien gozamen handienerako.

Museoetako bilduma ugari erakusgai dituen gure ondare hiria, street arteari eskaini Points de Vue Festibala aurten ere eskaintzeaz hain harro izaten ahal da eta biziki pozten nau ikustea, gertakizun honen karietara, aldi berean berretsia eta geldi-geldia berritua den arlo artistiko honi buruzko ikuspegi berriak eskaintzen dituen erakusketa bati atea zabaltzen dizkiola DIDAM-ek .


Graphic Waves erakusketari esker, ikusiko dugu numerikoa eta teknologia berriak hemendik aitzina nola lotzen zaizkien marrazkia, espraia eta graffitiari: ordenagailua, elektronika, robotika eta errealitate emendatua sartzen dira erakusketa eremuan obra bizi eta parte hartzaile batzuen esperientzetan murgil gaitezen.

Estetikoa eta jostagarria den erakusketa honek, hala ere sorkuntzaren poesia eta magia beti dakartzan mundu ez futurista batera buruz eramanen ditu ttipiak eta handiak.

Jean-René Etchegaray

Baionako Auzapeza

Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakaria



GRAPHIC WAVES

GRAPHIC WAVES erakusketak, marrazketa, grafiti eta muralismo praktikak digitalaren aroan, eta azken honek gaur egun artistei eskaintzen dizkien berrikuntzak arakutzen ditu. Ordenagailuari, elektronikari edo robotikari lotuak, unibertso grafikoek hats berria erdiesten dute.

Marrazki emendatua, grafiti interaktiboa, ukipen afixa, marrazki makina: bizidunak, parte hartzaileak eta bost aste horietan zehar aldakorrak diren obrak ikustera eta bizitzera gomitutzen zaituztete erakusketak.

Informatika kodean nahasiak, marrazkiak eta itxurak bizia hartuz ari dira eta begietarako etengabeko aldaeretan hedatzen dira, tintak eta tinduak uhinen gisa, irudi, ur eta argi jariotan itxuraldatzen direla ibilarazten ditugularik. Lanak DIDAMeko eremuan hedatzen dira apainketa murgiltzaileen gisan: heien esploratzera gomitutzen zaituztegu.

Artistak:


Claude Billès 537718 - Frantzia / Maxime Charasson - "Frantzia-Luxenburgo"

Antonin Fourneau - Frantzia / Julien Gachadoat - Frantzia


Yannick Jacquet - Suitzia / Frédéric Penelle - Belgika



Frédéric Penellek bat-bateko indarraldia eman dio irartzeari, guziz usaiaz kanpokoak, maliziatsua eta irrigarria bezain serioa den obran nehoiz ikusi erabilpenari esker. Hemen, Yannick Jacquet bideogilearekin bikotean.



«Dishu» deitu kaligrafia txinatar joankorrek Waterlight Graffitiren sorkuntza molde pareta.




Argazki kreditua: *Waterlight Graffiti*,
Antonin Fourneau -Ji Dust (c)
A.Fourneau

a inspiratu du, lurrundu gabe argitzen diren mezuz eta marrazkiz bete erran-



Argazki kreditua: *Mécaniques Discursives*
(c)Perte de Signal



Argazki kreditua: *Ondulations*,
Julien Gachadoat

Julien Gachadoatek ordenagailua darabil, "egile aparta hori"* robot diseinatzaileak inprimatu programa-marrazkien sortzeko. Irudi unibertso abstraktua, lerroez eta kurbez osatua, erakusketa honetarako asmatu 30 jatorrizko obren arabera etengabe berriztatzen dena.

* Véra Molnar artistari zor diogun erran-moldea.

ERAKUSKETAREN INGURUAN

Xehetasunak: didam@bayonne.fr / 05 59 46 63 43 (arratsaldeetan)

DIDAM | URRIAREN 12AN ETA 26AN, ASTELEHENAREKIN

9:30-12:30 > IDAZKETA TAILERRA

Laurent Platerorekin, Encre(s) agerkaria - Helduak

Denei irekia, erakusketari oihartzuna eginez, partehartzaileei hitzekin eta irudiekin bidaia proposatzen die tailer honek, bisitaren esperientzia testu baten bizkar-hezurra bilakatuko delarik.

Prezioa: 15€ osoa /12€ apaldua

Lekuak mugatuak - pointsdevue.eu/ateliers webgunean izena emanez

DIDAM | URRIAREN 17AN ETA 24AN, LARUNBATAREKIN

10:00-12:00 > SERIGRAFIA TAILERRA

Claude Billèsekin - 13 URTETIK GOITI

«We, the robots» gaia harturik, teknika mistoei esker (serigrafia, kolatzea, tindua, grafitiak...) afixa molde orekatuan eraikitzea, jostea eta osatzearen gomita luzatzen du tailer honek.

Prezioa: 13€ osoa / 10€ apaldua (Spacejunk bazkideak, ikasleak, 18 urtez pekoak, langabetuak eta Déclic txartela).

Lekuak mugatuak - pointsdevue.eu/ateliers webgunean izena emanez

DIDAM | URRIAREN 17AN ETA 31AN, LARUNBATAREKIN

18:00-19:00 > BISITA GIDATUA EUSKARAZ,

Maika Lapouble mintzalaria animaturik

Urririk, lekuak mugatuak, izena emanez: mediation.didam@bayonne.fr edo 05 59 46 63 58

DIDAM | URRIAREN 24AN, LARUNBATAAREKIN

18H-19H > BISITA GIDATUA,

Erakusketaren arduradunak eramanik

Urririk, lekuak mugatuak, izena emanez: mediation.didam@bayonne.fr edo 05 59 46 63 58

DIDAMEKO ATARIA / URTEAN GUZIAN ZEHAR

URR. 9TIK GOITI

Points de vue soinu ibilaldia San Izpiritun

Marina Bellefaye, Eddie Ladoire

Points de vue festibalaren fresko ohargarrien ezagutzera joan eta San Izpiritun auzotegia ikuspegi berri batez kausitu. Sakelako telefonoa eta entzungailua harturik, irrati-fikzio honek plazak, karrikarteak eta Aturri bazterrak ezagutzera gomitatzeko zaituzte, festibalaren artista gomitatu batzuen ahotsak, leku batzuen historia egin duten edo gaur biziarazten dutenenak, auzotegiko biztanle batzuenak beharri zuloan ukanik.

App storen edo Google Playn LISTENERS aplikazioa dohainik telekarga.

Lekuan berean izanik, aplikazioa indarrean ezar, geolokalizazioa abiaraz, ibilaldia eskainiko zaizue. Pantailan agertuko zaizkizuen balizek eramanen zaituztete behar den bidetik.

LISTENERS



DIDAM

Baiona Hiriko arte garaikide eremua
Lesseps kaia, 6
astartetik igandera, 14:00etatik 19:00etara



POINTS DE VUE FESTIBALA
2020KO URRIAREN 9TIK > AZAROAREN 15ERA
4. EDIZIOA

Nazioarteko hiri-artearen ikuspegia Baionan, bost astera hedatu formatuan berriz pentsatua izan da aurten *Points de vue* festibala. Suitzian, Erresuma Batutik, Espainiatik eta Frantzia zein Euskal Herriko eskualde ezberdinetatik etorri hamabost bat artista, agertzen ari diren artista berriak eta maila goragokoak, DIDAMeko eta hiriko murruetan haien unibertso grafikoak zein bisualak zabaltzeko gomiatuak dira. Egonaldiak denboran hedatuak dira eta freskoak, ekitaldian zehar, hau aitzinatu arau erakutsiak.

4. edizo honek digitalari buruz zuzendua du begirada, gure bizitzetan gero eta presentagoa, eta bere erabilpen sortzaileetan zoom bat egingen du. Street-art garaikidearen keinuak eta usaia berrikustea eta hiri esperientzia berriak, murgiltzaileak eta interaktiboak zuei proposatzea baimentzen dute. Proposatuko zaizkizuen praktika eta partekatzea, tailerren eta ibilbide gidatuen oinarri izan dira ere.

Nehoz baino gehiago, kulturak eta artistek zuen presentziaren, zuen begiaradaren eta zuen entzutearen beharra dute, Festibal on denei!

pointsdevue.eus

DIDAM BAYONNE

6 QUAI DE LESSEPS – BAYONNE
LESSEPS KAIA, 6 – BAIONA

ARTE GARAIKIDEKO ESPAZIOA

INFORMAZIO | DIRECTION DE LA CULTURE ET DU PATRIMOINE DE
LA VILLE DE BAYONNE | XEHETASUNAK | BAIONAKO KULTURA ETA
ONDAREAREN ZUZENDARITZA | 05 59 46 63 43 | DIDAM.BAYONNE.FR

GRAPHIC WAVES ERAKUSKETA, BAIONA HIRIAK DIDAMEN
PROPOSATURIK, BAIONAKO SPACE JUNK ARTE ZENTROAK ANTOLATU
POINTS DE VUE FESTIBALAREN LAUGARREN EDIZOAREN BARNEAN
AURKEZTUA DA.

BAIONA HIRIAK ERAKUSKETAREN PARTAIDEAK ESKERTZEN DITU.

